



Zikri MAULANA | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

ROHINGYEN GENOZIDIOA ERREPIKATZEKO ARRISKUA

Goiko irudia 2020ko ekainaren 25ekoa den arren, gaurkotasuna du oraindik ere. Rohingyaen kontrako genozi-
dioaren zazpigarren urteurrena bete denean, Myanmar eta Bangladesh banatzen dituen Naf ibaia zeharka-
tzen jarraitzen dute ihesi edo, argazkian bezala, Indonesiarako bidea hartzen dute. Iaz, 2.300etik gora erre-
fuxiatu rohingya iritsi ziren Aceh-ra. Myanmarerako Nazio Batuen Erakundearen erelatoreak, Thomas
Andrewsek, 2017ko abuztuan hasitako genozidioa berriro ez errepikatzeke neurriak hartzea exijitu berri du
Segurtasun Batzordean. Myanmarreko Indar Armatuak 10.000 rohingya hil zituzten eta aste gutxitan
700.000 zibilek Bangladeshera ihes egin behar izan zuten. Andrewsek ohartarazi duenez, «zazpi urteren on-
doren, historia errepikatzen ari da Rakhine estatuan. Orduan bezala, soldaduek zibilei eraso egiten diete eta
hil eta kanporatzen dituzte». Horrez gain, Batzorde Militarrek rohingyak bortxaz errekrutatzen ditu Arakan
gerrillaren kontra borrokatzeke eta horiek rohingyen zenbait herrixkari su eman diete. Ainara LERTXUNDI